

# Herri mugimenduen eta instituzioen arteko harremanaz

Parte Hartuz ikerketa taldea


EHU/UPV

# Nondik abiatzen gara?

- Parte Hartuz-ek 20 urte, 36 kide (formazioa, ikerketa eta esku hartzea)
- Hamaika prozesu: erraztatzaile, ikerlari eta ebaluatzaile
- Demokrazia parte hartzailearen birpentsatze ariketan dihardugu: zein da PHen pentsamendu eta praxi akademikoaren ekarpena?

Leire Escajedo San Epifanio  
Julen Zabalo Bilbao  
Igor Filibi Lopez  
(editoreak)

## Demokrazian sakontzea eta parte hartzea, hainbat eskalatan



# Praktika demokratizatzaileetan sakonduz

- Ekimen komunitarioek aldaketa eragin dute tokiko administrazioaren funtzionamenduan zein erabakiak hartzeko moduetan.
- Erakunde publikoak herri mugimenduekin erlazionatzeko bestelako eredu inguruko gogoetan sakontzea helburu.
- Esperientzia hauen analisiaren garrantzi epistemologikoa



# Egungo gizarte erronkak


- Begirada zabaltzeko beharra
- Testuinguru neoliberalak, ezberdintasun sozialak, larrialdi klimatikoak, ikuspegi arrazista eta matxista elikatzen duen jendarte ereduak.
- Lankidetzaz ari garenena, asimetria handia dago, eta herritarren erabakitze gaitasuna txikituz doa.
- Autoeraketa eta komunitatea logika indartzea, premiazkoa.




# Gobernantzaz dihardugunean...


- Gobernantza demokratikoa, gobernantza publiko komunitarioa, sare gobernantza, lankidetzazko gobernantza...
- Ezkerrean zein eskuinean
- Ahots kritikoek (Hardt eta Negri, 2000) urteetako olatu neoliberala ezbaian jartzea eragozten du.
- Gobernantza zein eremuetan? Azpiegitura handietan, etxebizitza politketan, ogasunean, zerbitzu publikoen kudeaketa ereduan...
- Finean, partaidetza politikak ezaugarritzen duen jardun instituzionala.





Noizko lobby-en eta erakundeen arteko harremanaren inguruko topaketak? Eta lehiaketa publikoen esleipenaren azterketa?








# Praktika politiko demokratizatzaileak eta eraldatzaileak

Herritarren auto-eraketa sustatzeko eremuak eta prozesuak trantsizio eko-sozialerako



**Testuinguru neoliberala**  
Jendarte-eredu klasista, ekozida, matxista eta arrazista elikatzen duena  
(Estatu modernoan arnas luzeko eredu zibilizatorioa)


# Eremuen ezaugarritzea

- Logika kontrajarriak dituzte herri mugimenduak eta erakundeak :





# Herri mugimenduak



# Herri mugimeduaren kokapena erakundeekiko

**Eremu instituzionaletik at**

**Elkarlanaren aldekoa**




**Erakundeekin  
lan egiteko  
disposiziorik  
ez zutenak.**

**Erakundeekin  
lan egiteko  
prestutasuna  
bai, baina barne  
ildoak lehenetsiz.**

**Erakundeekin  
lan egitearen  
aldekoak,  
baldintza eta  
helburuen arabera.**

**Lankidetzaren  
aldekoak,  
gobernu talde  
ezberdinak  
izanda ere.**

# Administrazioa



## Premiak eta lehentasunak

Arautzea, segurtasun juridikoa

Ezarrita dagoena eraldatzea



## Hizkuntza eta Kultura politikoa

Teknikoa, burokrazia eta alderdien  
lehia

Autonomia eta egitura gutxikoa



## Erritmo eta kodeak

Prozedurazkoa eta teknikoak

Bizia eta militantzia



# Elkarlanareko baldintzak

- Herri mugimenduen eta erakundeen arteko harremana gatazkatsua da.
- Antagonikoen artean, lankidetzarako borondatea dagoenean, elkarrizketarako baldintzak sortu egin behar dira, ez dira berez ematen.
- Hurbiltzeko eta elkar ulertzeko bidea/markoa eraiki behar da.
- Administrazioak herritarren parte hartzea eta mugimenduen ekarpena aitortu eta balioan jarri.
- Testuinguru neoliberalari aurre egiteko aliatu estrategikoak dira HHMMak.

# Elkarlanaren ezinak eta eginak


- Lankidetzak eragiteko ahalmena izan behar dute, bestela krisi demokratikoan sakontzen dugu. Botere harremanak orekatzeko ikuspegia egon behar da.
- Gobernantza demokratikoak erakundeen funtzionamendua eraldatzea dakar, eta eremu horretan oso gutxi aurreratu da. Alderdien lana.
- Egituraren desburokratizazioa eta humanizazioa: zeharkakotasuna, hizkuntza, geldotasuna...
- Lankidetzak esturik gabe ere, komunitate logika zaintzeko moduak daude (baliabideak, lagapen hitzarmenak, ibilbide burokratikoak erraztu).

# Erraztatzailarean rolaz

- Gauzak erraz egitearen artea, taldeei une bakoitzean kontzienteago izaten lagunduko diena (Iiface, 2023)
- Erraztatzailak eta merkatu logika
- Administrazioaren baldintzak nagusitzen dira, “bezeroak” agintzen duen modu eta arauetan.
- Unibertsitateak aukera pribilegiatua dugu, negoziatorako tarte handiagoa dugulako.
- Errazte lanetan dihardugunean gizartean dauden zapalkuntza ezberdinei erreparatu.
- Parte hartze teknikariaren garrantzia administrazioan.



Esperientziak adierazten digu erakundeetatik jarduteko gaitasunak urrunago iristea lortu duela herri mugimendu indartsua denean, arlo komunitarioa aitortzen duen langile publikoak daudenean eta alderdi politikoek elkarlan horretan sinisten dutenean.



# Erronkak

- Funtzio publikoa eta autogestioaren printzipioak nola bermatu batak bestea desitxuratu gabe?
- Karmela, Astra edota zenbait Emakumeen etxeak horren adibide dira? Lagapen hitzarmen eta kogestio ereduetatik irakaspenak.
- Ikuspegi interseksionala edo zapalkuntza ezberdinen begirada (klasea, generoa, jatorria, hizkuntza,...) parte hartze politikan edota gobernantzan.
- Administrazio publikoaren antolaketa birpentsatu.



# Erronkak

- Mugimenduen autonomiaren zaintzak, indar eraldatzaileen zaintza
- HHMMen, ezkerreko alderdien eta erakundeen funtzionamendu arauak ezberdinak dira, eta horien arteko zubi gutxi ikusten ditugu.
- Mugimenduek ere aurre gogoeta: zertan egon nahi edo ahal duten eta nola.
- Lankidetzaren eremuen inpaktua neurtu, ondorio kaltegarriak saihesteko.



Mila esker zuen arretagatik!